


VILLA ITURRITXO
D MAILA

JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 44



Antonio Agirre, 1923.

Deskribapena

Neoeuskaldunaren patroien ohiko erabileraren adibidea, baserri isolatuaren irudia bilatzen baitu, isurki berdinez, horixe da eta estilo horren bigarren fasearen berezko eredua. Estilo aldetiko ezaugarriek gogorarazi egin nahi dituzte, ez ordea zehatz-mehatz kopiatu, aurrealdeko bilbadurak, mentsula gainean aurreratutako albo murrak –nahiz aurrealdeko horma-atalak hegalki eduki ez- eta tartekako banaketa, egiturarekiko arbitrarioa inolaz ere, gehiago erantzuten dio-eta oinplanoaren banaketari. Horretatik dator, hain zuzen ere, aldeak arkuen eta balkoi nagusiaren kokapenaren arabera bereiztea.

D mailako berariazko babes araubidea

1. Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: Jatorrizko proiektuari erantsitako bi gorputzak, hegoaldeko fatxadaren, eta, beraz, bi bolumen horietako bakoien konfigurazioa. Ordenantza orokorren 21.8 artikuluan baimendutako jarduketak villako hegoaldeko fatxadarekin kontaktuan egonez gero baimenduko dira.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: fatxadetako harrizko erliebe eta emokatu guztiak. Teilatu hegalkak, habe eta habe buruekin.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: ez da baimentzen jasodurarik. Txapitulak irekitzeko baimena eman liteke, kopuruari eta tamainari dagokienez, estalkiaren bi planoen proportzio nagusiari eutsiz gero.
4. Nahitaezko lehengoratzeak: ez.